



*Bigarren Lehendakariordea eta Ekonomia, Lan eta Enpleguko Sailburua
Vicepresidente Segundo y Consejero de Economía, Trabajo y Empleo*

**AGINDUA, 2024KO AZAROAREN 22KOA, BIGARREN LEHENDAKARIORDE ETA EKONOMIA, LAN
ETA ENPLEGU SAILBURUARENA, 2024KO AZAROAREN 25ERAKO DEITUTAKO GREBAN ZEHAR,
GENERO-INDARKERIAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEEI LAGUNTZEKO BALIABIDEETAN
GIZARTEARI EMATEN ZAION FUNTSEZKO ZERBITZUARI EUTSIKO ZAIOLA BERMATZEN DUENA.**

Sindicato de Comisiones de Base (CO.BAS) erakunde sindikalak grebara deitu ditu Genero-indarkeriaren Biktima diren Emakumeei Laguntzeko Baliabideetako langileak, eta Espainia lurraldeko enpresa pribatu eta Administrazio Publiko eskudun guztiei eragingo die, azaroaren 25erako. Greba azaroaren 25ean hasiko da, 00:00etan, eta 24 orduko iraupena izango du, hau da, azaroaren 26ko 0:00etan amaituko da.

Espainiako Konstituzioaren 28.2 artikulua langileen greba egiteko eskubidea onartzen du, langileek beren interesak defenda ditzaten, horixe baita egungo zuzenbide estatu sozial eta demokratikoak oinarri dituen funtsezko eskubideetako bat. Konstituzioak, beraz, berdin babesten ditu greba-eskubidea eta beste zenbait eskubide garrantzitsu, hala nola bizia, osotasun fisikoa eta osasuna. Hain zuzen, Konstituzioak bete-betean babesten ditu, bai eskubide horiek guztiak, baita greba egiteko eskubidea ere.

Beraz, greba egiteko eskubidea erabiltzeak talka egin dezakeenez herritarren gainerako oinarrizko eskubideekin, Konstituzioaren 28. eta 37. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik, ezinbestekoa da neurri egokiak hartzea komunitatearentzako funtsezko zerbitzuei eutsiko zaiela ziurtatzeko, ez dadin edukirik gabe geratu gatazkan dauden oinarrizko eskubideetako bat bera ere.

Edonola ere, aurreko premisa ondorioztatu ondoren, nabaria da oinarrizko eskubideak murriztuko dituen neurri orok proportzionaltasun-printzipioa zorrotz bete behar duela eta, hori lortzeko, hiru betekizun edo baldintza bete beharko ditu neurriak: hori aplikatuz gero proposatutako helburua lortu ahal izatea, edo «egokitasun-judizioa»; kasua aztertu ondoren helburu hori eraginkortasun berdinarekin lortzeko neurri apalagorik ez dagoela ondorioztatu izana, edo «premia-judizioa»; eta, azkenik, neurria edo konponbidea orekatua edo neurtua izatea, haren aplikazioaren ondorioz guztion intereserako onura edo abantaila gehiago eragiten direlako auzian dauden beste ondasun edo balioetarako eragiten diren kalteak baino, hau da, «proportzionaltasun judizioa, zentzu hertsian». Gai horri buruz hainbat aldiz erabaki du Konstituzio Auzitegiak, honako epai hauen bitartez, besteak beste: 122/1990, 123/1990, 8/1992, eta 126/2003.

Erabaki horietatik ondorioztatu behar dugu gizartearentzako ezinbesteko zerbitzuak emango direla ziurtatzeak mugatu egiten duela grebarako eskubidea baliatzeko aukera, eta horretarako nahitaezkoa eta ezinbestekoa dela interes desberdinak kontuan hartuta zuhurtasunez jokatzeko. Hori guztia dela-eta, ziurtatze horrek berme gisa jardun behar du, eskubide kontrajarrien ezinbesteko koordinaziotik abiatuta, betiere ulertuta grebalarrien eskubidea mugatu beharko dela

—amore eman, Konstituzio Auzitegiaren hitzetan—, baldin eta haien interesak grebaren bidez babesteak komunitateari edo funtsezko zerbitzuaren hartzaileari zein zerbitzua jasotzeko eskubidearen titularrari eragiten dion edo eragin liezaiokeen kaltea larriagoa bada grebalarien erreibindikazioek edo eskakizunek arrakastarik ez izateak eragingo lukeena baino. Hori guztia dela-eta, aurrekoa kontuan hartuta eta greba-deialdi honen aurrean, grebaren garapenak dituen ezaugarri zehatzak hartu beharko dira kontuan; eta, zehazki, haren denbora-eremua, 24 ordukoa, eta haren jarduera-eremua, Genero-indarkeriaren Biktima diren Emakumeei Laguntzeko Baliabideetako langileak, bai enpresa pribatuetan bai administrazio publikoetan lan eginten dutenak.

Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntzeko baliabideak biltzen dituzten gizarte-zerbitzuak, erataka daude babes-neurrien multzo gisa, eta neurri horiek gutxieneko bizi-baldintza duinak eta kalitatezkoak bermatzen dizkiete mendetasun- eta/edo kalteberatasun-egoeran dauden pertsonen.

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 5.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema arreta-sare publiko artikulatu bat da, erantzukizun publikokoa, eta pertsona, familia eta talde guztien gizarteratzea, autonomia eta gizarte-ongizatea erraztea du helburu, sustapen-, prebentzio-, babes- eta laguntza-funtzioak garatuz, funtsean pertsonalak eta harremanezkoak diren prestazio eta zerbitzuen bitartez.

Era berean, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 6.1 artikulua honako funtsezko helburu hauek ezartzen ditu: autonomia pertsonala sustatzea eta mendetasunetik eratorritako premia pertsonal eta familiarak, babesgabetasun-egoerek eta bazterketa-egoerek sortutakoak, larrialdi-egoerek eragindako premia pertsonal eta familiarak prebenitu eta artatzea, bai eta pertsonen, familien eta taldeen gizarteratzea sustatzea ere.

Bizitzeko, osotasun fisiko eta moralerako eta osasuna babesteko eskubide konstituzionalak, Konstituzioaren 15. eta 43.1 artikuluetan jasotakoak, botere publikoei dagokie horiek bermatzea, prebentzio-neurrien bidez eta beharrezko zerbitzuak emango direla ziurtatuz, eta ezin dira geratu behar bezalako babesik gabe grebarako eskubidea legitimoki gauzatzearen aurrean. 10.1 artikulua ezartzen du pertsonaren duintasuna ordena politikoaren eta bake sozialaren oinarria dela.

Osasunaren babesa, berriz, herritarrek gutxieneko osasun-prestazioak eskatzeko duten eskubidea da, giza duintasunaren eta estatu bakoitzaren garapen sozial eta ekonomikoaren arabera. Hala, Giza Eskubideen Adierazpenak (NBE, 1948), 25.1 artikuluan, honako hau dio: «pertsona orok du osasunerako eta ongizaterako eskubidea, eta, bereziki, laguntza medikorako eta beharrezko gizarte-zerbitzuetarako eskubidea». Ildo beretik doaz Europako Kontseiluaren Gutun Sozialaren 11. artikulua (Turin, 1961) eta Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Itunaren 12. artikulua (NBE 1966).

Aurrekoaren ondorioz, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntzeko baliabideetako langileei egun bateko greba deialdia egin zaiela iragarri denez, gobernu-agintaritzak beharrezko neurriak hartu behar ditu funtsezko zerbitzuari eutsiko zaiola ziurtatzeko, eta bateragarri egin behar ditu erkidegoaren interes orokorra – «funtsezkotzat» jotako zerbitzuak legeaz aintzat hartzean inplizitua – eta deitutako langileek grebarako duten eskubidea, funtsezko edukia baita ere. Horretarako, honako inguruabar hauek hartu behar dira kontuan:

Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntzeko baliabideen eta/edo zerbitzuen artean hurrengo hauek daude: genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei eta haien adingabeei arreta integrala emateko zentro, zerbitzu, baliabide eta/edo programa espezializatuak, anbulatorio-mailan; larrialdiko arreta-zentroak, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei eta haien adingabeei arreta integrala ematen espezializatuak; egoitza-baliabideak (larrialdi-zentroak, egonaldi ertainak, egonaldi luzeak, tutoretzapeko etxebizitzak, etxebizitza gainbegiratuak...); genero-indarkeriaren biktima diren adingabeei eta/edo nerabeei arreta emateko programak eta zerbitzuak; sexu-erasoen biktima diren emakumeei edo adingabeei arreta espezializatu emateko zentroak; genero-indarkeria prebenitzeko eta gizonen eta emakumeen arteko aukera-berdintasuna sustatzeko lanak egiten dituzten berdintasun-espazioak, programak, baliabideak edo zerbitzuak, eta abar.

Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntzeko baliabideetan ematen diren zerbitzuak aztertu ondoren, ukalezina da garrantzi sozial handia duela. Zerbitzu hori jasotzen duten pertsonak nekez balia daitekeen kolektiboa osatzen dute, beren egoera subjektiboa eta pertsonala kontuan hartuta. Beraz, sektore honetan gutxieneko zerbitzurik finkatu gabe greba egiteak, grebarekin lortu nahi den helburua baino kalte nabarmen handiagoak eragin ditzake.

Ildo horretan, lan-harremanei buruzko martxoaren 4ko 17/1977 Errege Lege Dekretuaren 10. artikulua bigarren paragrafoak «gobernu-agintaritzari» esleitzen dio greba-kasuetan horrelako zerbitzuak emango direla ziurtatzeko beharrezko neurriak hartzeko eskumena, hala badagokio. Aipamen hori, Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziak manu horren inguruan egindako interpretazioaren arabera (besteak beste, 11/1981 epaia, apirilaren 8koa, 26/1981 epaia, uztailaren 17koa, eta 51/1986 epaia, apirilaren 24koa), Gobernuari edo gobernu-ahalak dituzten organoei egindakotzat hartu behar da.

Arau horrek – konstituzionaltasuna aitortua du (Konstituzio Auzitegiaren 11/1981 Epaia, apirilaren 8koa [RTC 1981\11]) –, Konstituzioaren greba-eskubideari buruzko 28.2 artikuluaekin bat etorritik, non ezartzen baita «eskubide horren erabilera arautzen duen Legeak beharrezko bermeak ezarriko dituela erkidegoaren funtsezko zerbitzuei eutsiko zaiela ziurtatzeko» – gobernu-agintaritzari aukera ematen zaio hainbat motatako berme-neurriak hartzeko, greba-kasuetan funtsezko zerbitzuei eutsiko zaiela ziurtatzeko. Neurri horietako bat da jarduerari eusteko ezinbesteko gutxieneko zerbitzuak ezartzea administrazio-ebazpen bidez, eta, ondorioz, langile kopuru jakin bati zerbitzu horiek egiteko deia egitea, langile horien lan-prestazioa behar baita.

Hala ere, eskumen hori baliatzeak ezin du greba-eskubidea de facto ezabatu, ezta edukiz hustu ere, bermatu beharreko gutxieneko zerbitzuak betetzeak normaltasun-itxura eman dezan ahalbidetzen baitu, eta hori haren ezarpenak izan behar duen izaera murriztailea oinarri hartuta. Beraz, eta jada ezarrita dagoen jurisprudentziari jarraituz, beharrezkoa da horiek mugatzeko zehaztapenean babestu beharreko beste oinarrizko eskubideekiko proportzionaltasun egokia gordetzea, bai eta murrizketa horiek behar bezala justifikatzea ere.

Indarrean dagoen legeriaren arabera, administrazio publikoek lehentasunezko eta premiazko arreta-kolektibotzat hartu behar dituzte emakumeen kontrako indarkeria matxistaren biktimak, arreta-prozesuan egokituz jotzen diren plaza eta zerbitzu publikoak eta itunduak eskuratzeko.

EAEen emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimei ematen zaien arreta

koordinatzeko erakundeen arteko III. Akordioaren esparruan (2023ko urtarrilekoa), indarkeria matxistaren zerbitzuak funtsezkotzat hartzea justifikatzen duten bi egoera deskribatzen dira: larrialdi-egoera, berehalako edo larrialdiko arreta behar duena eta honako hauek lehenesten dituen: laguntza eta babesa, larrialdiko osasun-arreta, larrialdiko ostatua eta premiazko laguntza psikosoziala/lehen laguntza psikologikoa; eta krisi-egoera, premiazko esku-hartzea edo ahalik eta azkarren erantzutea eskatzen duena.

Beraz, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei arreta emateko baliabideei dagokienez, emakume horien eta haien adingabeen bizitza, osasuna eta segurtasuna eta osotasuna bermatu beharko dira; hortaz, eskubide konstituzional horiek bermatuko dituzten gutxieneko zerbitzuak mantentzearen baldintzapean egongo da greba egitea. Hala, gutxieneko zerbitzuek bermatu beharko dute eragindako kolektiboaren premiazko eta atzeraezinezko beharrak eta larrialdi-egoerak aseko direla. Bestalde, kontuan hartu behar da Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2013ko maiatzaren 29ko Autoak, bidaiderik gabeko adingabeen zentroetarako eta esku-hartze sozialeko zentroetarako gutxieneko zerbitzuen ordeztze (2013ko maiatzaren 27ko Aginduan ezarritakoak), jaiegun bateko zerbitzuak ezarri zituen.

Greba orokorren, sektore publikoko greben, zaintzaren sektoreko greben eta Bizkaiko esku-hartze sozialaren sektoreko greben kasuetan, deitutako grebaren antzeko iraupena dutenean eta deialdi honen antzeko eremu funtzionaletan eragina dutenean, hainbat agindu eman dira, eta horien edukia kontuan hartu da agindu hau egiteko. Berriki, 2024ko irailaren 26ko Agindua argitaratu da, irailaren 27rako deitutako greba orokorra dela eta; era berean, 2024ko martxoaren 8ko Agindua eman da, martxoaren 12an sektore publikoan greba egiteko. Bestalde, Bizkaiko esku-hartze sozialaren sektorean, Gutxieneko Zerbitzuen Aginduak eman dira: 2023ko maiatzaren 23koa, 2023ko ekainaren 19koa, 2023ko urriaren 27koa eta 2023ko abenduaren 14koa, sektore horretan bertan deitutako lau grebetarako (2023ko maiatzaren 24koa eta 25ekoa, eta 2023ko ekainaren 20koa eta 21ekoa, urriaren 30ekoa eta 31koa, eta abenduaren 21ekoa eta 28koa); 2024ko apirilaren 15ekoa, 2024ko apirilaren 17koa eta maiatzaren 8koa deitutako grebarako. Berriki, 2024ko apirilaren 15eko Agindua argitaratu da, 2024ko apirilaren 17an eta maiatzaren 8an deitutako grebarako.

Nahiz eta orduan agindutako gutxieneko zerbitzuak ez diren deialdi honetako gutxieneko zerbitzuak finkatzeko premisa juridiko loteslea – doktrina konstituzionalak galarazitako inferentzia –, aukera ematen dute egiaztatzeko zer eragin positibo edo negatibo izan dituzten, deialdi horietako gutxieneko zerbitzuek ezarritako babesei dagokienez, agindu honek babestu nahi dituen eskubide eta ondasun konstituzionaletan – grebarena barne –. Horregatik, agindu honek orduan emandako gutxieneko zerbitzuei eusten die.

Inguruabar horiek direla eta, gobernu-agintaritzak agindu honetan zehaztutako gutxieneko zerbitzuak ezarri behar ditu, gatazkan dauden eskubideen funtsezko edukia bateragarri egiten saiatzeko.

Gai horri buruzko eskumen eskusiboa Gobernu Agintaritzari esleitzearen helburua da greba-eskubidea baliatzeak izan behar dituen mugak, funtsezko zerbitzu jakin batzuei eustearren, oinarrizko beste eskubide batzuk asetzerara bideratuta dauden heinean, Zuzenbidearen arabera bakarrik ezarri ahal izatea, eta gobernu-erantzukizuna eta -ahala duenak bakarrik.

Hori dela eta, lan-harremanei buruzko martxoaren 4ko 17/1977 Errege Lege Dekretuaren 10.2 artikuluan aipatzen den prozedura bideratu da.

Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 5eko 323/2024 Dekretuaren 3. artikulua titularrari esleitzen dizkio Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien jardun-arloak finkatzen dituen irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren bidez lan-arloko legeria betearaztearen arloan bere gain hartutako eskumenak. Zehazki, 2.j) atalean jasotzen du eskumen hau: zerbitzu publikoak edo premia biziko eta atzerazineko zerbitzuak emateko ardura duten enpresa, entitate eta erakundeei eragiten dieten greba-eskubidea erabiliz gero, komunitatearen funtsezko zerbitzuei eutsiko zaiela ziurtatzeko beharrezko bermeak ezartzeko eskumena erabiltzea. Eskumen hori ekainaren 11ko 139/1996 Dekretuak eskuordetzen du.

Horregatik guztiagatik, Bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enpleguko sailburuak, Eusko Jaurlaritzak eskuordetuta, honako hau

EBATZI DU:

Lehena. – Sindicato de Comisiones de Base (CO.BAS) erakunde sindikalak, Genero-indarkeriaren Biktima diren Emakumeei Laguntzeko Baliabideetako langileei deitutako greba, (2024ko azaroaren 25ean, lanaldi osoan), gutxieneko zerbitzu hauek mantentzearen baldintzapean egongo da:

Jaiegun bati dagozkion zerbitzuak mantenduko dira honako kasu hauetan:

- genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen eta haien adingabeen larrialdi-egoerei eta premia larri eta atzerazineki arreta zerbitzua.
- genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako eta haien adingabeentzako egoitza-zentroak.

Bigarrena. - Dagozkion administrazio-izapideak betez gero, aipatutako zerbitzuak aldatu ahal izango dira grebaren iraupenagatik, edo arrazoi higieniko biosanitarioak edo batbateko ezohiko arrazoiak direla-eta ezinbestekoa baldin bada.

Hirugarrena. – 1. Grebarako eskubidea erabiltzen ez duten langileek emango dituzte lehentasunez aipatutako zerbitzuak.

2. Langileen ordezkariari entzun eta gero, Enpresa Zuzendaritzak izendatuko ditu gutxieneko zerbitzuak bete behar dituzten langileak eta langile horiek, txandaka, bete beharreko eginkizunak. Nolanahi ere, orain arte esandakoak eta aurreko artikuluan nahiz indarreko legedian ezarritako mugak errespetatu beharko dira.

Laugarrena. - Agindu honen aurreko apartatuetan bildutako gutxieneko zerbitzuak ezin izango dira aldatu horiek egiteko izendatuta dauden langileen aldaketen edo lanuzteen ondorioz.



Halakorik gertatuz gero, legez kontrakotzat joko dira eta horiek egiten dituztenak izango dira erantzule, eta erantzukizuna eskatuko zaie indarrean dagoen ordenamendu juridikoaren arabera.

Bosgarrena. - Aurreko artikuluetan xedatutakoa gorabehera, greba egiten duten langileen eskubideak, grebari buruzko araudiak aitortzen dituenak, ez dira inola ere murriztuko, ezta grebarako deia egin dutenen eskakizunen izapidetzea eta ondorioak mugatuko ere.

Seigarrena. - Jakinarazten den egunean jarriko da indarrean agindu hau.

Zazpigarrena. - Agindu honen berri eman behar zaie interesdunei, urriaren 1eko 39/2015 Legeak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak) 40. artikuluan xedatutako moduan; halaber, ebazpenak administrazio-bidea agortzen duela jakinarazi behar zaie, eta horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango dela Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren dagokion salan, ebazpena jakinarazten denetik 2 hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoaren arabera

Era berean, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan aurreikusitakoari jarraikiz, honako hau ere jakinarazi behar zaie: agindu honen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez daitekeela lan-agintaritza honetan, hilabeteko epean agindua jakinarazi eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteizen,

MIGUEL TORRES LORENZO
BIGARREN LEHENDAKARIORDEA ETA
EKONOMIA, LAN ETA ENPLEGU SAILBURUA